2027

AURREKONTU OROKORRAK

Euskal Autonomia Erkidegoa

PRESUPUESTOS GENERALES

Comunidad Autónoma de Euskadi

Lege-proiektua

Proyecto de ley

#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

PROIEKTUA - PROYECTO

euskadi.eus

2027

AURREKONTU OROKORRAK

Euskal Autonomia Erkidegoa

PRESUPUESTOS GENERALES

Comunidad Autónoma de Euskadi

#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

PROIEKTUA - PROYECTO

euskadi.eus

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2026ko urria / 1a, octubre 2026

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ogasun eta Finantza Saila / Departamento Hacienda y Finanzas

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Aurkibidea / Índice :

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2027. URTEKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUEN LEGE-PROIEKTUA
PROYECTO DE LEY POR LA QUE SE APRUEBAN LOS PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI PARA EL EJERCICIO 2027 6

I. TITULUA: EUSKADIKO 2027. URTEKO AURREKONTU OROKORREN ONARPENA ETA EDUKIA
TITULO I: APROBACIÓN Y CONTENIDO DE LOS PRESUPUESTOS GENERALES DE EUSKADI PARA EL EJERCICIO 2027 7

II. TITULUA: GASTUEN EGOERA-ORRIA
TITULO II: EL ESTADO DE GASTOS 13

I. kapitulua: Kreditu motak. Berezitasunak
Capítulo I: Tipos de créditos. Especialidades 14

II. kapitulua: Kredituen araubidea. Aldaketak
Capítulo II: Régimen de los Créditos. Modificaciones 18

III. kapitulua: Lansarien eta hartzeko pasiboen araubidea
Capítulo III: Régimen de retribuciones y haberes pasivos 22

IV. kapitulua: Itunpeko ikastetxeen gastuei aurre egiteko ekonomia-modulua
Capítulo IV: Módulo económico de sostenimiento de los centros educativos concertados 28

V. kapitulua: Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia planari lotutako funtsak kudeatzea
Capítulo V: Gestión de los fondos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia 31

III. TITULUA: DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIA
TITULO III: EL ESTADO DE INGRESOS 37

I. kapitulua: Foru-aldundien ekarpenak
Capítulo I: Aportaciones de las Diputaciones Forales 38

II. kapitulua: Zerga izaerako araua
Capítulo II: Normas de carácter tributario 40

IV. TITULUA: KONTRATATZEKO ETA GASTUA BAIMENTZEKO ARAUAK
TITULO IV: NORMAS DE AUTORIZACIÓN DEL GASTO Y DE CONTRATACIÓN 42

V. TITULUA: LEGEBILTZARRARI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA
TITULO V: INFORMACIONES AL PARLAMENTO 45

XEDAPEN GEHIGARRIAK
DISPOSICIONES ADICIONALES 47

AZKEN XEDAPENAK
DISPOSICIONES FINALES 57

I.ERANSKINA: KONPROMISO-KREDITUAK
ANEXO I: CRÉDITOS DE COMPROMISO 87

II. ERANSKINA: SOZIETATE PUBLIKOEN AURREKONTUAK
ANEXO II: PRESUPUESTOS DE LAS SOCIEDADES PUBLICAS 103

III. ERANSKINA: KREDITU ZABALGARRIAK
ANEXO III: CRÉDITOS AMPLIABLES 106

IV. ERANSKINA: ITUNPEKO IKASTETXEEN GASTUEI AURRE EGITEKO EKONOMIA-MODULUA
ANEXO IV: MÓDULO ECONÓMICO DE SOSTENIMIENTO DE LOS CENTROS CONCERTADOS 112

EAEKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ORGANISMO AUTONOMOEN ETA PARTZUERGO PUBLIKOEN LABURPENAK
RESÚMENES DE ADMINISTRACIÓN GENERAL, ORGANISMOS AUTÓNOMOS Y CONSORCIOS PÚBLICOS DE LA CAE 126

Administrazio Orokorraren gastuen laburpenak
Resúmenes de gastos de la Administración General 127

Administrazio Orokorraren diru-sarreren laburpenak
Resúmenes de ingresos de la Administración General 146

Organismo Autonomoen laburpenak

Resúmenes de los Organismos Autónomos *154*

EAEko Sektore Publikoko Partzuergoen laburpenak
Resúmenes de los Consorcios del Sector Público de la CAE *157*

ENTE, SOZIETATE ETA FUNDAZIO PUBLIKOEN AURREKONTUEN LABURPENAK
RESÚMENES DE PRESUPUESTOS DE ENTES PÚBLICOS, SOCIEDADES Y FUNDACIONES PÚBLICAS *160*

Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoak
Entes Públicos de Derecho Privado *161*

Sozietate Publikoak
Sociedades Públicas *164*

Fundazio Publikoak
Fundaciones Públicas *169*

Euskal Irrati-Telebista ente publikoa eta kudeaketa-sozietatea. Bateratua
Ente público Radio Televisión Vasca y sociedad de gestión. Consolidado *172*

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2027. URTEKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUEN LEGE-PROIEKTUA

PROYECTO DE LEY POR LA QUE SE APRUEBAN LOS PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI PARA EL EJERCICIO 2027

I. TITULUA: EUSKADIKO 2027. URTEKO AURREKONTU OROKORREN ONARPENA ETA EDUKIA

TITULO I: APROBACIÓN Y CONTENIDO DE LOS PRESUPUESTOS GENERALES DE EUSKADI PARA EL EJERCICIO 2027

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2027. URTEKO AURREKONTU OROKORRAK ONESTEN DITUEN LEGEAREN PROIEKTUA

I. TITULUA

EUSKADIKO 2027. URTEKO AURREKONTU OROKORRAK ONESTEA ETA HORIEN EDUKIA

1. artikulua.- Onestea.

1.– Onetsi egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoko 2027. urteko Aurrekontu Orokorrak, betiere lege honek ezartzen duen eran eta moduan.

2.– Eusko Legebiltzarraren aurrekontua ere lege honen barruan sartzen da, hala ezartzen baita Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsita), 25.2.a artikuluan.

3.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren aurrekontua ere lege honen barruan sartzen da, hala ezartzen baita Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 24. artikuluan.

4.– Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren aurrekontua ere onesten da eta lege honen barruan sartzen da, hala ezartzen baita Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren abenduaren 21eko 16/2023 Legearen 4. artikuluan.

5.– Lege hau aplikatzekoa izango zaie lege hau berau onetsiz geroztik sortzen diren entitateei eta haiei dagozkien aurrekontuei.

2. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren aurrekontua.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren aurrekontuan jasotako gastuen kopurua 17.628.990.000 eurokoa da ordainketa-kredituetarako. Konpromiso-kredituei dagokienez, bestalde, 3.514.473.822 eurokoa; azken kreditu horiek 2027az geroztik izango duten urtekako aurrekontu-banaketa I. eranskinean zehazten da.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren aurrekontuan jasotako diru-sarreren kopurua 17.628.990.000 eurokoa da.

3.– Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 90.etik 93.era bitarteko artikuluek xedatutakoari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoak Euskal Herriko Unibertsitaterako bereizten duen aurrekontu-zuzkidura 461.171.367 eurokoa da, honela banatuta:

– Ekarpen arrunta: 369.195.249 euro gastu arruntetarako eta 1.800.000 euro kapital-eragiketetarako.

PROYECTO DE LEY POR LA QUE SE APRUEBAN LOS PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI PARA EL EJERCICIO 2027

TÍTULO I

APROBACIÓN Y CONTENIDO DE LOS PRESUPUESTOS GENERALES DE EUSKADI PARA EL EJERCICIO 2027

Artículo 1.- Aprobación.

1.– Se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2027 en los términos establecidos en la presente ley.

2.– Se incorpora, a los efectos contemplados en el artículo 25.2.a del texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, el presupuesto del Parlamento Vasco.

3.– Se incorpora, a los efectos contemplados en el artículo 24 de la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, el presupuesto del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

4.– Se aprueba e incorpora, a los efectos contemplados en el artículo 4 de la Ley 16/2023, de 21 de diciembre, de la Autoridad Vasca de Protección de Datos, el presupuesto de la Autoridad Vasca de Protección de Datos.

5.– La presente ley será de aplicación a las entidades que puedan crearse con posterioridad a su aprobación y a su correspondiente presupuesto.

Artículo 2.- Presupuesto de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

1.– El estado de gastos del presupuesto de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi asciende en cuanto a los créditos de pago a la cantidad total de 17.628.990.000 euros y en cuanto a los créditos de compromiso a la cantidad total de 3.514.473.822 euros, cuyo desglose en ejercicios presupuestarios posteriores al 2027 será el que se detalla en el Anexo I.

2.– El estado de ingresos del presupuesto de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi asciende a la cantidad total de 17.628.990.000 euros.

3.– La dotación presupuestaria de la Comunidad Autónoma de Euskadi a la Universidad del País Vasco, de conformidad con lo que disponen los artículos 90 a 93 de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, se fija en la cantidad de 461.171.367 euros, que se desglosa en los siguientes conceptos:

– Aportación ordinaria por importe de 369.195.249 euros para gastos corrientes y de 1.800.000 euros para operaciones de capital.

– Programa-kontratuak finantzatzeko ekarpen gehigarria: 45.053.567 euro.

– Inbertsiorako urte anitzeko plana finantzatzeko kredituak: 25.000.000 euro.

– Banakako ordainsari-osagarriak finantzatzeko kredituak: 20.122.551 euro.

– Aportación complementaria para la financiación de contratos-programa por importe de 45.053.567 euros.

– Créditos para la financiación del plan plurianual de inversiones por importe de 25.000.000 euros.

– Créditos para la financiación de complementos retributivos individuales por importe de 20.122.551 euros.

3. artikulua.- Organismo autonomoen aurrekontuak.

1.– Organismo autonomoen aurrekontuetako gastuen egoera-orrietan ordainketa-kredituak eta konpromiso-kredituak onartzen dira ondorengo taulan zehazten diren zenbatekoekin; konpromiso-kredituak 2027az geroztik izango duten urtekako aurrekontu-banaketa lege honen I. eranskinean zehazten da:

Artículo 3.- Presupuestos de los organismos autónomos.

1.– En los estados de gastos de los presupuestos de los organismos autónomos se conceden créditos de pago y de compromiso por los siguientes importes, cuyo desglose en ejercicios presupuestarios posteriores a 2027 será el que se detalla en el Anexo I de esta ley:

Organismo autonomoak Organismos autónomos	Ordainketa-kredituak Créditos de pago	Konpromiso-kredituak Créditos de compromiso
Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea Instituto de Alfabetización y Reeuskaldunización de Adultos	78.937.000	87.012.167
Administrazio Publikoaren Euskal Institutua Instituto Vasco de Administración Pública	21.458.000	305.000
Eustat-Euskal Estatistika Erakundea Eustat-Instituto Vasco de Estadística	18.682.000	10.267.000
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer	8.360.000	2.934.199
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia Academia Vasca de Policía y Emergencias	40.760.000	8.181.830
Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Erakundea Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales	20.291.000	5.704.200
Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo	8.659.000	3.883.480
Lehiaren Euskal Agintaritza Autoridad Vasca de la Competencia	2.296.000	158.500
Gogora-Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua Gogora-Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos	5.283.000	3.105.000

2.– Aipatutako organismo autonomoen diru-sarrerei dagokienez, organismo horietako bakoitzerako izendatutako ordainketa-krediturien guztizko zenbateko bera jasotzen da diru-sarreren egoera-orrietan ere.

2.– Los estados de ingresos de los presupuestos de los organismos autónomos mencionados ascienden al mismo importe total que los créditos de pago consignados para cada uno de ellos.

4. artikulua.- Zuzenbide pribatuko ente publikoen aurrekontuak.

Zuzenbide pribatuko ente publikoen aurrekontuetan, ondorengo taulan zehazten diren zenbatekoak dituzten zuzkidurak onesten dira, eta diru-baliabideak zenbateko berekoak izango dira. Gerorako konpromisoen egoera, bestalde, ondoren zehazten diren zenbatekoetara iristen da; konpromiso horiek 2027az geroztik izango duten urtekako aurrekontu-banaketa lege honen I. eranskinean zehazten da.

Artículo 4.- Presupuestos de los entes públicos de derecho privado.

En los presupuestos de los entes públicos de derecho privado se aprueban dotaciones por los importes que se detallan en el cuadro siguiente, estimándose los recursos en idénticas cuantías. Por su parte, el estado de compromisos futuros asciende a los importes que también se detallan a continuación, cuyo desglose en ejercicios presupuestarios posteriores a 2027 será el que se establece en el Anexo I.

Zuzenbide pribatuko ente publikoak Entes públicos de derecho privado	Aurrekontua Presupuesto	Gerorako konpromisoak Compromisos futuros
Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzua Osakidetza - Servicio Vasco de Salud	4.612.535.000	762.009.546
Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo	1.191.811.687	167.397.979
eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia eLankidetza-Agencia Vasca de Cooperación y Solidaridad	56.324.842	31.790.000
Zibersegurtasunaren Euskal Agentzia Agencia Vasca de Ciberseguridad	7.366.250	0
Aukerak-Gizarteratzearen Euskal Agentzia Aukerak-Agencia Vasca de Resinserción Social	17.025.000	0
Energiaren Euskal Erakundea Ente Vasco de la Energía	205.198.000	105.529.575
Euskal Trenbide Sarea Red Ferroviaria Vasca	454.368.000	1.779.375.000
Uraren Euskal Agentzia Agencia Vasca del Agua	67.869.000	92.220.819
Finantzen Euskal Institutua Instituto Vasco de Finanzas	492.578.000	85.792.518
Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia Unibasq - Agencia de Calidad del Sistema Universitario Vasco	2.058.000	0
Euskal Irrati-Telebista Radio Televisión Vasca	214.345.000	0
Etxepare Euskal Institutua/Basque Institute Instituto Vasco Etxepare/Basque Institute	5.170.347	1.360.000
SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia SPRI-Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial	132.482.100	115.801.217
Euskadiko Kirol Portuak Euskadiko Kirol Portuak	9.870.000	8.117.788

5. artikulua.- Sozietate publikoen aurrekontuak.

1.– Sozietate publikoen aurrekontuetan, guztira, 2.147.826.819 euroko zuzkidurak onesten dira, eta gerorako konpromisoen egoerari dagokionez, 717.643.982 euro; konpromiso horiek 2027az geroztik izango duten urtekako aurrekontu-banaketa lege honen I. eranskinean zehazten da.

2.– Sozietate publiko horientzat aurreikusitako diru-baliabideek sozietate bakoitzerako onetsitako zuzkiduren guztizko zenbateko bera izango dute.

3.– Sozietate bakoitzaren aurrekontuan aurreikusitako zuzkiduren eta diru-baliabideen zenbatekoak II. eranskinean zehazten dira.

6. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioen aurrekontuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioen aurrekontuetan, ondorengo taulan zehazten diren zenbatekoko zuzkidurak onesten dira, eta diru-baliabideak zenbateko berekoak izango dira. Gerorako konpromisoen egoera, bestalde, ondoren zehazten diren zenbatekoetara iristen da; konpromiso horiek 2027az geroztik izango duten urtekako aurrekontu-banaketa lege honen I. eranskinean zehazten da.

Artículo 5.- Presupuestos de las sociedades públicas.

1.- En los presupuestos de las sociedades públicas se aprueban dotaciones por un importe total de 2.147.826.819 euros y por un importe total de 717.643.982 euros en cuanto al estado de compromisos futuros, cuyo desglose en ejercicios posteriores al 2027 será el que se detalla en el Anexo I.

2.– Los recursos estimados de las citadas sociedades públicas ascienden al mismo importe total que las dotaciones aprobadas para cada sociedad.

3.– El importe de las dotaciones y de los recursos estimados en el presupuesto de cada sociedad se especifican en el Anexo II.

Artículo 6.- Presupuestos de las fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

En los presupuestos de las fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi se aprueban dotaciones por los importes que se detallan en el cuadro siguiente, estimándose los recursos en idénticas cuantías. Por su parte, el estado de compromisos futuros asciende a los importes que también se detallan a continuación, cuyo desglose en ejercicios presupuestarios posteriores a 2027 será el que se establece en el Anexo I.

Fundazio publikoak Fundaciones públicas	Aurrekontua Presupuesto	Gerorako konpromisoak Compromisos futuros
Hazi Fundazioa Fundación Hazi	29.451.000	0
Elika Fundazioa Fundación Elika	1.342.000	0
Musikene Fundazioa Fundación Musikene	13.228.000	0
BIOEF Euskal Fundazioa Fundación Vasca BIOEF	10.086.000	1.708.781
EHko Gazte Orkestra Fundazioa Fundación EHko Gazte Orkestra	742.000	0
Basque Team Fundazioa Fundación Basque Team	2.556.000	0

7. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoen aurrekontuak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoen aurrekontuetako gastuen egoera-orrietan ordainketa-kredituak onartzen dira ondorengo paragrafoetan zehazten diren zenbatekoekin:

– Haurreskolak partzuergoa: 95.401.619 euro.

– Basque Research and Technology Alliance euskal partzuergo zientifiko-teknologikoa: 2.961.000 euro.

2.– Aipatutako partzuergoen aurrekontuen diru-sarreren egoera-orriak partzuergo horietako bakoitzerako izendatutako ordainketa-krediturez guztizko zenbateko bera dira.

8. artikulua.- Euskal Irrati-Telebista ente publikoaren eta irratiko eta telebistako zerbitzu publikoak kudeatzeko sozietate publikoaren aurrekontu bateratua.

Euskal Irrati-Telebista Herri Erakunde Publikoa sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen 44. artikulua betetzeko, onesten da Euskal Irrati-Telebista ente publikoaren eta irratiko eta telebistako zerbitzu publikoak kudeatzeko sozietate publikoaren aurrekontu bateratua. Zuzkidurak 228.753.216 eurokoak izango dira, eta diru-baliabideak zenbateko berekoak izango dira.

9. artikulua.- Bermeak ematea eta birfidantzamendua.

1.– 2027ko ekonomia-ekitaldian zehar, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak edo, hala dagokionean, Finantzen Euskal Institutuak 400.000.000 euro erabili ahal izango dituzte, gehienez, edozein motatako eragiketetarako bermeak emateko.

2.– 2027ko ekonomia-ekitaldian zehar, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak edo, hala dagokionean, Finantzen Euskal Institutuak birfidantzatu ahal izango dituzte elkarren bermerako sozietateek euskal enpresei emandako abalak, eta bermatu Luzaro KFE sozietateak euskal enpresei emandako maileguak, abal eta

Artículo 7.– Presupuestos de los consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

1.– En los estados de gastos de los presupuestos de los consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi se conceden créditos de pago por los siguientes importes:

– Consorcio Haurreskolak: 95.401.619 euros.

– Consorcio científico-tecnológico vasco Basque Research and Technology Alliance: 2.961.000 euros.

2.– Los estados de ingresos de los presupuestos de los consorcios mencionados ascienden al mismo importe total que los créditos de pago consignados para cada uno de ellos.

Artículo 8.– Presupuesto consolidado del ente público Radio Televisión Vasca y de la sociedad pública de gestión de los servicios públicos de radio y televisión.

De conformidad con el artículo 44 de la Ley 5/1982, de 20 de mayo, de Creación del Ente Público Radio Televisión Vasca, se aprueba el presupuesto consolidado del ente público Radio Televisión Vasca y de la sociedad pública de gestión de los servicios públicos de radio y televisión, que asciende, en cuanto a las dotaciones, a la cantidad total de 228.753.216 euros, estimándose los recursos en idénticas cuantías.

Artículo 9.– Prestación de garantías y reafianzamiento.

1.– Durante el ejercicio económico 2027, la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi o, en su caso, el Instituto Vasco de Finanzas podrán prestar garantías por razón de operaciones de cualquier naturaleza por un importe máximo de 400.000.000 euros.

2.– Asimismo, durante el ejercicio 2027, la Administración eneral de la Comunidad Autónoma de Euskadi o, en su caso, el Instituto Vasco de Finanzas podrán reafianzar los avales otorgados por las sociedades de garantía recíproca y garantizar los préstamos concedidos por la sociedad Luzaro EFC a las empresas vascas como instrumentos que

maileguok laguntza-tresna baitira enpresek berezko funtsak edo finantzaketa lortzeko, betiere entitate horiekin izenpetutako bidezko hitzarmenen esparruan.

Birfidantzamendu-eragiketek, era berean, finantza-estaldura eman ahal izango diote banakako enpresarientzako eta profesional autonomoentzako eta enpresa txiki eta ertainentzako urte anitzeko zernahi finantza-lerrori, zirkulatzailearen beharrari erantzuteko, epe laburreko zorra berritzeko, epe laburreko zorra epe ertain eta luzerako zor gisa egokitzeko eta, hala dagokionean, inbertsio-planak azeleratzea eragiten duten finantza-arloko jarduketak gauzatzeko, baldin eta plan horiek 2027. urtean zehar gertatzen badira euskal enpresei finantzaketa eskuratzen laguntza emateko programen bidez.

Zenbaki honetan aipatzen den birfidantzamenduaren gehieneko zuzkidura 600.000.000 eurokoa da.

3.– Orobat, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak edo, hala dagokionean, Finantzen Euskal Institutuak bermatu ahal izango dute Europako Inbertsio Bankuak, Europako Inbertsio Funtsak edo beste finantza-erakunde batzuek Luzaro KFEri edo entitate laguntzaileei emandako finantzaketa, baldin eta azken hartzaileak euskal enpresak badira, betiere entitate horiekin izenpetutako hitzarmenen esparruan.

10. artikulua.– Zorpetze- eta finantza-eragiketak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak formalizatutako zorpetzea, edozein agiri-motatan gauzatzen dela ere, muga honekin gehitu ahal izango da: ekitaldiaren amaierako saldoak gainditu ahal izango du ekitaldiaren hasieran dagokion saldoa, baina ez 634.000.000 eurotik gora.

2.– Zuzenbide pribatuko entitateen kanpo-zorpetzea ere, edozein agiri-motatan gauzatzen dela ere, gehitu ahal izango da, muga honekin: ekitaldiaren amaierako saldoak gainditu ahal izango du ekitaldiaren hasieran dagokion saldoa, baina ez 125.000.000 eurotik gora.

3.– Zenbateko horiei ez zaizkie egotziko diruzaintzako aldi baterako premiei aurre egiteko kreditu-eragiketak urtebeterako edo gutxiagorako badira.

les faciliten la consecución de fondos propios o financiación, en el marco de los correspondientes convenios suscritos con esas entidades.

Las operaciones de reafianzamiento podrán también dar cobertura financiera a cualesquiera líneas plurianuales de financiación a personas empresarias individuales y profesionales autónomas, pequeñas y medianas empresas para la atención de necesidades de circulante, la renovación de deuda a corto plazo, la adecuación de deuda a corto plazo en deuda a medio y largo plazo, y, en su caso, para aquellas actuaciones de naturaleza financiera que supongan una aceleración de sus planes de inversión que tengan lugar a lo largo del año 2027 a través de los programas de apoyo al acceso a la financiación de las empresas vascas.

La dotación máxima del reafianzamiento al que se refiere este número será de 600.000.000 euros.

3.– Igualmente, la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi o, en su caso, el Instituto Vasco de Finanzas podrán garantizar la financiación otorgada por el Banco Europeo de Inversiones, el Fondo Europeo de Inversiones u otras instituciones financieras a Luzaro EFC o a entidades colaboradoras y cuyo destinatario final sean las empresas vascas, en el marco de los correspondientes convenios suscritos con esas entidades.

Artículo 10.– Operaciones de endeudamiento y financieras.

1.– El endeudamiento formalizado por la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi, cualquiera que sea la forma en que haya sido documentado, podrá incrementarse con la limitación de que el saldo al cierre del ejercicio no supere el correspondiente saldo al comienzo del ejercicio en más de 634.000.000 euros.

2.– El endeudamiento externo formalizado por las entidades que se rijan por el derecho privado, cualquiera que sea la forma en que haya sido documentado, podrá incrementarse con la limitación de que el saldo al cierre del ejercicio no supere el correspondiente saldo al comienzo del ejercicio en más de 125.000.000 euros.

3.– A dichos importes no se imputarán las operaciones de crédito, por plazo no superior a un año, destinadas a necesidades transitorias de tesorería.

II. TITULUA: GASTUEN EGOERA-ORRIA
TITULO II: EL ESTADO DE GASTOS

I. kapitulua: Kreditu motak. Berezitasunak

Capítulo I: Tipos de créditos. Especialidades

II. TITULUA

GASTUEN EGOERA-ORRIA

I. KAPITULUA

KREDITU MOTAK. ESPEZIALITATEAK.

11. artikulua.- Kreditu zabalgarriak eta finantzabideak.

1.– Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 24, 25 eta 26. artikuluetan ezarritakoaren aurka jo gabe, 2027ko ekitaldian zabalgarriak izango dira, nahitaez aitortu behar diren obligazioen zenbatekoraino, lege honen III. eranskinean azaltzen diren kredituak, zeinak sartuta baitaude Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren, haren organismo autonomoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoen aurrekontuetan.

2.– Zabalgarritzat jotzen diren kredituen gehikuntzek eta aipatzen diren gainerako kredituen gehikuntzek honako finantzabide hauek izango dituzte:

a) Xede batera atxikitako eskubideen benetako bilketaren araberako gehikuntzak finantzatzeko, hasieran aurreikusitako diru-sarrerez gain jasotako diru-sarreren soberakinak izango dira oinarri.

b) Lurralde historikoek Estatuari ordaindu behar dioten kupoa neurri berean gutxiagotzea ekartzen duten gehikuntzak finantzatzeko, lurralde historikoek berek finantzatuko dituzte, gutxitu den zenbateko berean, betiere 2027rako ezarritako ekarpen-koefizienteen arabera.

c) Finantza modu zehatzik ez duten gehikuntzak finantzatzeko, Gobernu Kontseiluak erabakiko du, betiere Ogasun eta Finantza Sailak proposatu ondoren, nola egin.

3.– Horrez gain, Gobernu Kontseiluak diruzaintzako gerakinen kontura zabaldu ahal izango ditu «Zenbait sailen gastuak» sekzioko gastuen egoera-orrian azaltzen diren kreditu zabalgarriak eta, hala badagokio, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak onetsitako finantza-laguntza emateko plan eta programetatik sortutako finantza-premiak.

12. artikulua.- Konpromiso-kredituak.

2027ko ekitaldian, Ogasun eta Finantza Sailak aurreko urteetan sortu diren konpromiso-kredituen zenbatekoa egokitu ahal izango du, beharrezko diren aldaketak eginez, baldin eta kredituok finantza-eragiketak edo arriskuen estaldura-eragiketak gauzatzearekin zerikusia duten elkarlanerako hitzarmenei eta kontratuei badagozkie eta eragiketon urteko zenbatekoa interes-tasaren edo antzeko beste adierazleen bilakaeraren araberakoa bada.

TÍTULO II

EL ESTADO DE GASTOS

CAPÍTULO I

TIPOS DE CRÉDITOS. ESPECIALIDADES.

Artículo 11.- Créditos ampliables y medios de financiación.

1.– Sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 24, 25 y 26 del texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, durante el ejercicio 2027 tendrán carácter ampliable, hasta una suma igual a las obligaciones cuyo reconocimiento sea preceptivo, los créditos que, incluidos en los presupuestos de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de sus organismos autónomos y de los consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se detallan en el Anexo III de esta ley.

2.– Los incrementos de los créditos calificados de ampliables, así como del resto de los créditos que se citan, serán financiados de la siguiente manera:

a) Los que estén en función de la efectiva recaudación de derechos afectados se financiarán en función del exceso de ingresos percibidos sobre los inicialmente previstos.

b) Los que produzcan una correlativa disminución del cupo a pagar al Estado por los territorios históricos serán financiados por estos por igual importe al de aquella disminución, de acuerdo con los coeficientes de aportación establecidos para 2027.

c) Los que no tengan asignada una forma específica de financiación serán financiados de la forma que disponga el Consejo de Gobierno a propuesta del Departamento de Hacienda y Finanzas.

3.– Adicionalmente, la ampliación de los créditos ampliables que figuran en el estado de gastos de la sección «Gastos Diversos Departamentos» y, en su caso, de las necesidades de financiación derivadas de la ejecución de planes y programas de apoyo financiero aprobados por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas podrá llevarse a cabo por el Consejo de Gobierno con cargo a remanentes de tesorería.

Artículo 12.- Créditos de compromiso.

Durante el ejercicio 2027, el Departamento de Hacienda y Finanzas podrá adecuar, mediante las modificaciones que fueran precisas, el importe de los créditos de compromiso generados en ejercicios anteriores correspondientes a convenios de colaboración y contratos relacionados con la instrumentación de operaciones financieras o de cobertura de riesgos cuyo importe anual esté en función de la evolución de los tipos de interés o de otros indicadores similares.

13. artikulua.- Aurrekontu-plantillak.

1.– Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 51. artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta organismo autonomoetako eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoetako behin-behineko langileen, funtzionarioen eta langile lan-kontratudunen plantillak onesten dira, sailkapen-talde edo -azpitaldearen arabera sailkatuta, eta, hala badagokio, dagokien kidego, eskala, aukera eta espezialitatearen arabera; hasiera batean, aurrekontu hauen «Pertsonalaren eranskina» izenekoan xedatutakoaren araberako aurrekontu-programa eta -sekzioei atxikita egongo dira.

2.– Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 22. artikuluan xedaturikoaren ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren, organismo autonomoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoen aurrekontu-plantillari dagokion muga funtzionarioen, langile lan-kontratudunen eta behin-behineko langileen plaza guztien kopuru osoari dagokiola ulertuko da, entitate horien guztien multzo osoa kontuan hartuta.

3.– Orokorrean, aurrekontu-plantillak langile-zuzkidura berriak sortuz aldatzen badira, behar beste zuzkidura amortizatu beharko dira horren ondorioz, erakunde berean edo Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duen beste erakunde batean, baldin eta erakunde horren aurrekontuak lege honen aplikazio-eremuan sartuta badaude, urteko kostu gordina handiagoa izan ez dadin.

4.– Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, Gobernu Kontseiluak langile-zuzkidura berriak sortzeko baimena eman ahal izango du, Ogasun eta Finantza Sailaren proposamenez, lanpostuen zerrendak honako arrazoi hauengatik aldatzen badira: eskumenen transferentziak benetan gauzatzen direlako, ebazpen judizialak betearazten direlako, organo eta zerbitzu berriak sortzen direlako, kanporatutako edo azpikontrataturiko zerbitzuen kudeaketa zuzena egiten delako, egiturazko lanpostu edo plazak finkatzen direlako, lege-mailako arauak promulgatzen direlako, edo Jaurlaritzak koiunturakoak ez diren planak, programak eta jarduera garrantzitsuak onesten dituelako. Horretarako, finantzaketa egokia beharko da beti, bai eta enplegu publikoaren arloan eskumena duen organoaren aldez aurreko aldeko txostena ere, non adieraziko baita ezinezkoa dela premia berriei aurre egitea lanpostuak berratxikita, langileak berresleituta edo giza baliabideak arrazionalizatzeko eta antolatzeko bestelako baliabideak erabilita.

5.– Halaber, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoko administrazio-kontseiluak lanpostu funtzional berriak onetsi ahal izango ditu ente publikoaren langileen plantilletan, zerbitzuak irekitzearen edo berrantolatzearen ondorioz. Horretarako, finantzaketa egokia beharko da beti. Plantilla horiek Gobernu Kontseiluak, Osasun Sailaren proposamenez, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 26. artikuluari jarraituz, erabakitako gehieneko langile-kopurura egokitu beharko dira.

Artículo 13.- Plantillas presupuestarias.

1.– De conformidad con lo dispuesto en el artículo 51 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco, se aprueban las plantillas del personal eventual, funcionario y laboral de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de los organismos autónomos y de los consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, clasificados por el grupo o el subgrupo de clasificación y el cuerpo, escala, opción y especialidad, en su caso, al que pertenezcan, con adscripción inicial a los programas y secciones presupuestarias conforme a lo dispuesto en el «Anexo de personal» a estos presupuestos.

2.– A los efectos de lo dispuesto en el artículo 22 del texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, el carácter limitativo en lo concerniente a la plantilla presupuestaria de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de los organismos autónomos y de los consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi se entenderá referido al total agregado de plazas de personal funcionario, personal laboral y personal eventual y para el conjunto de dichas entidades.

3.– Con carácter general, la modificación de las plantillas presupuestarias mediante la creación de nuevas dotaciones de personal requerirá la consiguiente amortización de las dotaciones necesarias, en la misma o en otra entidad integrante del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi cuyos presupuestos estén incluidos en el ámbito de aplicación de la presente ley, de manera que no represente superior coste anual bruto.

4.– No obstante lo establecido en el párrafo anterior, el Consejo de Gobierno, a propuesta del Departamento de Hacienda y Finanzas, podrá autorizar la creación de nuevas dotaciones de personal en el supuesto de modificaciones en las relaciones de puestos de trabajo derivadas de la efectiva realización de traspasos de competencias, la ejecución de resoluciones judiciales, la creación de nuevos órganos y servicios, la asunción de la gestión directa de servicios externalizados o subcontratados, la consolidación de puestos o plazas de carácter estructural, la promulgación de normas con rango de ley o la aprobación por el Gobierno de planes, programas y actuaciones significativas de carácter no coyuntural, siempre que cuenten con la adecuada financiación y previo informe favorable del órgano competente en materia de empleo público en el que se haga constar la imposibilidad de atender las nuevas necesidades con la readscripción de puestos de trabajo, la reasignación de efectivos u otras medidas de racionalización y ordenación de recursos humanos.

5.– Asimismo, el consejo de administración del ente público Osakidetza-Servicio vasco de salud podrá aprobar nuevos puestos funcionales en las plantillas de personal del ente público como consecuencia de la apertura o reorganización de servicios, siempre que cuenten con la adecuada financiación. Dichas plantillas deberán ajustarse al número máximo de efectivos que determine el Consejo de Gobierno a propuesta del Departamento de Salud, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 26 de la Ley 8/1997, de 26 de junio, de ordenación sanitaria de Euskadi.

6.– Ogasun eta Finantza Sailari baimena ematen zaio langileen gastuen kredituetan beharrezkoak diren aurrekontu-aldaketak egiteko gastuen kredituak artikulu honetan xedaturikoaren arabera onesten diren plantilla-aldaketetara egokitze aldera.

7.– Artikulu honetan aipatzen diren arauekin bat etorriz baimendu beharko da zuzenbide pribatuko erakunde publikoen, sozietate publikoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioen langile-zuzkiduretan 2027ko urtarrilaren 1ean indarrean dauden zuzkiduren gainetik egiten den edozein aldaketa, baldin eta erakunde horien aurrekontua lege honen aplikazio-eremuan sartuta badago. Ondorio horietarako, erakunde horietan zuzkidurak sortzea konpentsatu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean, haren organismo autonomoetan, partzuergoetan edo Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoko beste erakunde batzuetan lege honen aplikazio-eremuan sartuta dauden zuzkidurak amortizatuz, eta alderantziz, betiere multzoaren urteko kostu gordina handitzen ez bada.

6.– Se autoriza al Departamento de Hacienda y Finanzas para realizar en los créditos de gastos de personal las modificaciones presupuestarias que sean necesarias para su ajuste a las alteraciones de las plantillas que resulten aprobadas con arreglo a lo dispuesto en el presente artículo.

7.– La modificación en las dotaciones de personal de los entes públicos de derecho privado, sociedades públicas y fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi cuyos presupuestos estén incluidos en el ámbito de aplicación de la presente ley, por encima de las vigentes a 1 de enero de 2027, deberá ser autorizada de conformidad con las reglas a las que se refiere este artículo. A estos efectos, la creación de dotaciones en dichas entidades podrá compensarse mediante la amortización de dotaciones en la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi, sus organismos autónomos, consorcios u otras entidades del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi incluidas en el ámbito de aplicación de la presente ley, y viceversa, siempre que no se incremente el coste anual bruto del conjunto.

II. kapitulua: Kredituen araubidea. Aldaketak

Capítulo II: Régimen de los Créditos. Modificaciones

II. KAPITULUA

KREDITUEN ARAUBIDEA. ALDAKETAK.

14. artikulua.- Kredituen transferentzien araubidea. Beste aldaketa batzuk.

1.– Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginak arautuko du, 2027ko ekitaldian zehar, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko, haren organismo autonomoetako eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoetako aurrekontu orokorretako kreditu-transferentzien araubidea, ondorengo artikuluetan adierazten diren berezitasunen aurka jo gabe.

2.– Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 86.etik 90.era bitarteko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, eta finantzen aldetik posible bada, Ogasun eta Finantza Sailak, sail eskatzaileak hala proposatuta, Autonomia Erkidegoko aurrekontuan sartu ahal izango ditu 2026ko ekitaldiko gerakinak, honako kreditu hauei dagozkienak:

– Dirulaguntzak etxebizitzak birgaitzeko (1., 2. eta 3. lineak)-4312 programa.

– Dirulaguntzak enpresei ingurumena babesteko-4421 programa.

– Ikertu, garatu eta berritzeko (I+G+b) laguntzak-5411 programa.

– Erein laguntzak-7111 programa.

– Leader laguntzak-7111 programa.

– Itsaspen laguntzak-7111 programa.

– Arrantza- eta akuikultura-sektorerako laguntzak-7112 programa.

– Arrantza-eremuak garatzeko laguntzak (PTGE)-7112 programa.

– Lehiatu Berria laguntzak-7113 programa.

3.– Aipatutako testu bateginaren 90.1 artikuluan ezarritako denbora-eskakizunaren ondorioetarako, aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera sartutako kredituak gehienez ere beste bi ekitalditan gauzatu beharko dira.

15. artikulua.- Langileriaren arloko kredituak.

Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 66.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eta 2027. ekitaldirako bakarrik, sekzio bakoitzerako, izaera loteslea izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko, haren organismo autonomoetako eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoetako aurrekontuen I. kapituluko 122, 123, 131, 132, 161 eta 162.

CAPÍTULO II

RÉGIMEN DE LOS CRÉDITOS. MODIFICACIONES.

Artículo 14.- Régimen de transferencias de créditos. Otras modificaciones.

1.– Durante el ejercicio 2027, el régimen de transferencias de créditos de los presupuestos generales de la Administración general de la Comunidad Autónoma, de sus organismos autónomos y de los consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi se regirá por el contenido del texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, sin perjuicio de las particularidades que se indican en los artículos siguientes.

2.– No obstante lo dispuesto en los artículos 86 a 90 del texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, y siempre que sea financieramente posible, el Departamento de Hacienda y Finanzas, a propuesta del departamento solicitante, podrá incorporar al presupuesto de la Comunidad Autónoma los remanentes correspondientes al ejercicio 2026 de los créditos relativos a:

– Subvenciones para rehabilitación de viviendas (líneas 1, 2 y 3)-programa 4312.

– Subvenciones a empresas para la protección del medio ambiente-programa 4421.

– Ayudas a la investigación desarrollo e innovación (I+D+i)-programa 5411.

– Ayudas Erein-programa 7111.

– Ayudas Leader-programa 7111.

– Ayudas Itsaspen-programa 7111.

– Ayudas sector pesquero y acuícola-programa 7112.

– Ayudas desarrollo zonas pesqueras (EDLP)-programa 7112.

– Ayudas Lehiatu Berria-programa 7113.

3.– A los efectos del requisito temporal previsto en el artículo 90.1 del referido texto refundido, los créditos incorporados de acuerdo con lo previsto en el párrafo anterior deberán realizarse en un período máximo de dos ejercicios adicionales.

Articulo 15.- Créditos de personal.

A los efectos señalados en el artículo 66.3 del texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, y con vigencia exclusiva para el ejercicio 2027, para cada sección, tendrán carácter vinculante a nivel de concepto los gastos comprendidos en los conceptos 122, 123, 131, 132, 161 y 162, y a nivel de subconcepto, los gastos comprendidos en el subconcepto 16101, correspondientes al capítulo I de los

kontzeptuen barruan dauden gastuek, kontzeptuaren mailan, eta 16101 azpikontzeptuaren barruan dauden gastuek, azpikontzeptuaren mailan.

16. artikulua.- Funtzionamendu-gastuetarako kredituak.

1.– Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginean 66.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eta 2027. ekitaldirako bakarrik, izaera mugatzailea eta loteslea edukiko dute kapituluaren mailan sekzio eta programa bakoitzerako, haien sailkapen ekonomikoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko, haren organismo autonomoetako eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoetako aurrekontuetako II. kapituluan –funtzionamendu-gastuak–, gastuen egoera-orrietan sartuta dauden ordainketa-kredituek, salbu eta aurrekontuaren gastuen xehetasunetan gastu erreserbatu gisa sailkatutakoek. Hori horrela, ez da kreditu-transferentziarik beharko kapituluaz beheragoko mailan.

2.– Aurreko paragrafoan ezarritakoa hori izanik ere, izaera loteslea izango dute kontzeptuaren mailan «Osasun Finantzaketa eta Kontratazioa» 4112 programako 250 kontzeptuan bildutako gastuek.

17. artikulua.- Eragiketa arruntetarako eta kapital-eragiketarako transferentzietarako eta dirulaguntzetarako kredituak.

1.– Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko aurrEkontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 66.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eta 2027. ekitaldirako bakarrik, izaera mugatzailea eta loteslea izango dute artikuluaren mailan sekzio eta programa bakoitzerako, haien sailkapen ekonomikoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko, haren organismo autonomoetako eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoetako aurrekontuetako IV. eta VII. kapituluetan –gastu arruntetarako transferentziak eta dirulaguntzak, eta kapital-eragiketetarako transferentzia eta dirulaguntzak, hurrenez hurren–, gastuen egoera-orrietan sartuta dauden ordainketa-kredituek.

2.– Aurreko paragrafoan ezarritakoa hori izanik ere, izaera loteslea izango dute kapitulu, sekzio, zerbitzu eta programaren mailan «Nekazaritza, eta Landaren eta Itsasertzaren Garapena» 7111 programako ordainketa-kredituek.

3.– Era berean, izaera loteslea izango dute kapitulu, sekzio eta programaren mailan «Enplegua» 3211, «Prestakuntza» 3231 eta «Gizarteratzea» 3121 programetako ordainketa-kredituek.

18. artikulua.- Aurrekontuetako aldaketak.

1.– Zuzenbide pribatuko ente publikoen, sozietate publikoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioen aurrekontuetan aldaketak sortzen badira eta Jaurlaritzak onetsitako edozein planek, programak eta

presupuestos de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de sus organismos autónomos y de los consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Articulo 16.- Créditos para gastos de funcionamiento.

1.– A los efectos de lo dispuesto en el artículo 66.3 del texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011 de 24 de mayo, con vigencia exclusiva para el ejercicio 2027, tendrán carácter limitativo y vinculante a nivel de capítulo para cada sección y programa, en cuanto a su clasificación económica, los créditos de pago incluidos en los estados de gastos de los presupuestos de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de sus organismos autónomos y de los consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi correspondientes al capítulo II, gastos de funcionamiento, excepto los calificados como gastos reservados en el pormenor de gastos del presupuesto, no siendo necesarias, por tanto, transferencias de crédito a nivel inferior a capítulo.

2.– No obstante lo establecido en el párrafo anterior, tendrán carácter vinculante a nivel de concepto los gastos comprendidos en el concepto 250 correspondientes al programa 4112 «Financiación y Contratación Sanitaria».

Articulo 17.- Créditos para transferencias y subvenciones para operaciones corrientes y de capital.

1.– A los efectos de lo dispuesto en el artículo 66.3 del texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, con vigencia exclusiva para el ejercicio 2027, tendrán carácter limitativo y vinculante a nivel de artículo para cada sección y programa, en cuanto a su clasificación económica, los créditos de pago incluidos en los estados de gastos de los presupuestos de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de sus organismos autónomos y de los consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi correspondientes a los capítulos IV y VII, transferencias y subvenciones para gastos corrientes y transferencias y subvenciones para operaciones de capital, respectivamente.

2.– No obstante lo establecido en el párrafo anterior tendrán carácter vinculante a nivel de capítulo, sección, servicio y programa los créditos de pago correspondientes al programa 7111 «Agricultura y Desarrollo Rural y Litoral».

3.– Asimismo, tendrán carácter vinculante a nivel de capítulo, sección y programa los créditos de pago correspondientes a los programas 3211 «Empleo», 3231 «Formación» y 3121 «Inclusión Social».

Articulo 18.- Variaciones de los presupuestos.

1.– Las variaciones de presupuestos de los entes públicos de derecho privado, de las sociedades públicas y de las fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, cuando aquellas vengan producidas por

garrantzizko jarduerak sortutakoak badira, Ogasun eta Finantza Sailak emango du aldaketa horiek egiteko baimena.

2.– Gobernu Kontseiluak, Ogasun eta Finantzetako sailburuak hala proposatuta, aurreko zenbakian aipatutako sektore publikoko entitateen aurrekontu-aldaketak baimendu ahal izango ditu baldin eta aldaketa horien jatorria beste administrazio edo entitate publiko batzuetatik funtsak jasotzean badago eta funts horien xedea Euskal Autonomia Erkidegoaren exekuzio-eskumenekoak diren arloetako jarduketak modu baldintzatuan finantzatzea bada. Era berean, jarduketa horien ondorioak hurrengo ekitaldietara luzatzen badira, Gobernu Kontseiluak, Ogasun eta Finantzetako sailburuak proposatuta, geroko konpromisoen egoera-orria gehitu ahal izango du, konpromiso berriak onetsiz edo baimendutakoen diru-zenbatekoa handituz.

3.– Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 98. artikuluan xedaturikoaren ondorioetarako, Gobernu Kontseiluari egokituko zaio Finantzen Euskal Institutuaren aurrekontuetan aldaketak baimentzea, bai aldaketa horiek Europako Inbertsio Bankuak, Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekonomikoa sustatzeko finantzaketa-lerroak ezartze aldera, emandako finantzaketatik eratorritakoak direnean, bai Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko beste entitate batzuek, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsaila-ren 21eko 4/2019 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian xedatutako finantza-tresnan aplikatze aldera edo jasangarritasun energetikoko ekintzak eta proiektuak sustatzeko neurriak finantzatzen aplikatze aldera, emandako finantzaketatik eratorritakoak direnean.

cualesquiera planes, programas y actuaciones significativas aprobados por el Gobierno, serán autorizadas por el Departamento de Hacienda y Finanzas.

2.– El Consejo de Gobierno, a propuesta del consejero de Hacienda y Finanzas, podrá autorizar las modificaciones presupuestarias de las entidades del sector público a las que se refiere el párrafo anterior cuando tengan su origen en la percepción de fondos de otras administraciones o entidades públicas y su destino sea la financiación condicionada de actuaciones en materias cuya competencia de ejecución corresponda a la Comunidad Autónoma. Asimismo, en el supuesto de que dichas actuaciones extendieran sus efectos a ejercicios posteriores, el Consejo de Gobierno, a propuesta del consejero de Hacienda y Finanzas, podrá incrementar el estado de compromisos futuros, aprobando nuevos compromisos o aumentando el importe de los autorizados.

3.– A los efectos de lo dispuesto en el artículo 98 del texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, corresponderá al Consejo de Gobierno la autorización de aquellas modificaciones en los presupuestos del Instituto Vasco de Finanzas derivadas de la financiación otorgada por el Banco Europeo de Inversiones para su aplicación al establecimiento de líneas de financiación destinadas a la promoción de la actividad económica de la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como de la procedente de otras entidades del sector público de la Comunidad Autónoma para su aplicación a la herramienta financiera prevista en la disposición adicional quinta de la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca, o a la financiación de medidas de fomento de acciones y proyectos de sostenibilidad energética.

III. kapitulua: Lansarien eta hartzeko pasiboen araubidea

Capítulo III: Régimen de retribuciones y haberes pasivos

III. KAPITULUA

ORDAINSARIEN ETA HARTZEKO PASIBOEN ARAUBIDEA.

19. artikulua.- Langileen ordainsariak.

1.– 2027. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko lan-kontratudunak ez diren langileen urteko guztizko ordainsariek ezin izango dute izan, 2026ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, sektore publikoko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenetan aurreikusitako gehikuntza globala baino handiagorik, homogeneotasunaren arabera kalkulatuta erkaketaren bi aldietarako, ez langileen kopuruari eta antzinatasunari dagokienez, ez lanaldi-araubideari dagokionez.

2.– Lan-kontratudunak ez diren langileak sektore publikoko karrerako eta bitarteko funtzionarioak dira, bai eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoko estatutupeko langileak ere.

3.– Justizia Administrazioko langileen ordainsariez bezainbatean, langile horiei dagokien berariazko araudia aplikatuko da.

4.– 1. paragrafoan zehaztutakoa gorabehera, ordainsari osagarriak berariaz eta salbuespenez egokitu ahal izango dira baldin eta ezinbestekoak badira lanpostuaren edukian izandako eraldaketengatik, programa bakoitzari esleitutako langile-kopuruan izandako aldaketengatik edo programa horiei ezarritako helburuen betetze-mailarengatik. Era berean, 1. paragrafoan zehaztutakoa gorabehera, lanpostuak antolatzeko eta sailkatzeko sistemak aplikatu ahal izango dira, eta sistema horiek aplikatzekoak izango zaizkie transferentzien bitartez euskal administrazio publikoetan sartzen diren edo sartuak diren langileei ere; era berean, sektoreetako berezitasun batzuk egokitu ahal izango dira ordainsari-kontzeptuak ordainsarien egitura berriaren arabera periodifikatzeagatik, berregituratzeagatik edo egokitzeagatik.

5.– Aurreko paragrafoetan ezarritakoarekin bat etorriz, lan-araubidekoak ez diren langileek jaso beharreko oinarrizko ordainsariak izango dira aurrekontu-ekitaldian zehar indarrean daudenak administrazio publikoetako funtzionarioen oinarrizko ordainsarien araubidea erregulatzen duten arauei jarraituz.

6.– Aparteko ordainsariak, zeinak bi izango diren, bata ekainean eta bestea abenduan, jasoko dira artikulu honen 5. paragrafoak zehaztutako soldataren eta hirurtekoaren kopuruen arabera, eta hileko bati dagokion destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren edo baliokidea den kontzeptuaren arabera, betiere paragrafo hau aplikatu ahal zaien kolektiboen ordainsari-araubideak dioena kontuan hartuta.

7.– Ordainsari osagarriek, 2026ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, ezin izango dute izan sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenetan aurreikusitako

CAPÍTULO III

RÉGIMEN DE RETRIBUCIONES Y HABERES PASIVOS.

Artículo 19.- Retribuciones del personal.

1.– En el año 2027, las retribuciones anuales íntegras del personal al servicio del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi no sujeto a régimen laboral no podrán experimentar, con respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2026, un incremento global superior al previsto en las disposiciones que con carácter básico se puedan dictar en relación con los gastos del personal al servicio del sector público, en términos de homogeneidad para los dos periodos de comparación, por lo que respecta tanto a efectivos de personal como a su antigüedad y a su régimen de jornada.

2.– Se entiende como personal no laboral el personal funcionario de carrera e interino al servicio del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como el personal estatutario dependiente del ente público Osakidetza-Servicio vasco de salud.

3.– Las retribuciones del personal al servicio de la Administración de Justicia se regirán por su normativa específica.

4.– Lo dispuesto en el párrafo 1 se entenderá sin perjuicio de la adecuación de las retribuciones complementarias que con carácter singular y excepcional resulten imprescindibles por una modificación en el contenido del puesto de trabajo, por la variación del número de efectivos asignados a cada programa o por el grado de consecución de los objetivos fijados a dicho programa. Asimismo, se entenderá sin perjuicio de la aplicación de los sistemas de organización y clasificación de puestos de trabajo, incluyendo la aplicación de estos al personal que acceda o haya accedido a las administraciones públicas vascas en virtud de transferencias, o de la adecuación de las particularidades sectoriales específicas derivadas de la periodificación, reestructuración o adaptación de los conceptos retributivos a la nueva estructura retributiva.

5.– De conformidad con lo establecido en los párrafos anteriores, las retribuciones básicas a percibir por el personal no sujeto a régimen laboral serán las que estén vigentes a lo largo del ejercicio presupuestario conforme a las normas reguladoras del régimen de retribuciones básicas del personal funcionario de las administraciones públicas.

6.– Las pagas extraordinarias, que serán dos al año, una en el mes de junio y otra en el mes de diciembre, se percibirán en las cuantías de sueldo y trienios que se determinen de conformidad con lo previsto en el párrafo 5 de este artículo, y de una mensualidad del complemento de destino y del complemento específico o concepto equivalente en función del régimen retributivo de los colectivos a los que este párrafo resulte de aplicación.

7.– Las retribuciones complementarias no podrán experimentar, con respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2026, un incremento global superior al previsto en las disposiciones que con carácter básico se

gehikuntza globala baino handiagorik, hargatik eragotzi gabe programa bakoitzari esleitutako langile-kopuruaren aldaketaren ondorioz, programari ezarritako helburuen betetze-mailaren ondorioz eta programa aplikatzearen banakako emaitzen ondorioz egin daitezkeen aldaketak.

8.– Behin 2027ko ekitaldirako administrazio publikoetako funtzionarioen oinarrizko ordainsariak zehaztuta, Gobernu Kontseiluak zehaztuko du Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 122.2.a.1 artikuluan erregulatutako destino-osagarriaren urteko zenbatekoa, bai eta gainerako ordainsari osagarriena ere, aurreko apartatuetan xedatutako irizpideekin bat etorriz.

9.– Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko langile lan-kontratudunen soldata-masak, 2027ko urtarrilaren 1ean, ezin izango du izan, 2026ko ekitaldian ezarritakoaren aldean, sektore publikoko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenetan aurreikusitako gehikuntza globala baino handiagorik, hargatik eragotzi gabe lanpostuaren edukian izandako aldaketetatik, programa bakoitzari esleitutako langile-kopuruan izandako aldaketetatik, programari ezarritako helburuen betetze-mailetatik edo lana antolatzeko sistemen edo sailkapenaren aldaketetatik eratorritako gehikuntzak.

Artikulu honen ondorioetarako, lan-kontratudun langileen soldata-masa esaten denean hau adierazi nahi da: kasuan kasuko langileek 2026an zehar irabazitako soldatapeko ordainsariak –geroratuak barne– eta soldataz kanpokoak. Hala ere, badira zenbait salbuespen:

a) Gizarte Segurantzako prestazioak eta kalte-ordainak.

b) Enplegu-emaileak Gizarte Segurantzako sistemari ordaindu beharreko kotizazioak.

c) Lekualdatzeei edo kaleratzeei dagozkien kalte-ordainak.

d) Langileak egindako gastuengatiko kalte-ordainak.

Gizarte-ekintzako gastuak ezin izango dira handitu, oro har, 2026koekin alderatuta.

10.– Aurreko paragrafoan jasotakoa, hortaz, 2027ko soldata-masari dagokion goi-muga da; soldata-masa hori, gero, negoziazio kolektiboaren bidez ezarri eta emango zaie banakakoei.

11.– Soldata-masaren aldaketak homogeneotasunaren arabera kalkulatuko dira erkaketaren bi aldietarako, bai langileen kopuruari eta antzinatasunari dagokienez, bai lanaldi-motari, lanari eta gainerako lan-baldintzei dagokienez.

12.– Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko enplegatu publikoei dagozkien akordio, hitzarmen edo itunak etenda geratuko dira beren aplikazioan artikulu honetako xedapenak betetze aldera, baldin eta haien aplikaziotik aurreko paragrafoetan zehaztutakotik gorako ordainsari-gehikuntzak eratortzen badira 2027ko ekitaldirako, eta, hortaz, artikulu honen aurka doazen klausulak aplikaezin bihurtuko dira.

Etenda geratuko da, halaber, borondatezko erretiroarekin

puedan dictar en relación con los gastos del personal al servicio del sector público, sin perjuicio de las modificaciones que se deriven de la variación del número de efectivos asignados a cada programa, del grado de consecución de los objetivos fijados para el mismo y del resultado individual de su aplicación.

8.– Una vez se produzca la determinación para el ejercicio 2027 de las retribuciones básicas del personal funcionario de las administraciones públicas, el Consejo de Gobierno determinará la cuantía anual del complemento de destino regulado en el artículo 122.2.a.1 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco, así como del resto de retribuciones complementarias, de conformidad con los criterios previstos en los párrafos anteriores.

9.– La masa salarial del personal al servicio del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi sometido a régimen laboral, con fecha 1 de enero de 2027, no podrá experimentar, con respecto a la establecida en el ejercicio 2026, un incremento global superior al previsto en las disposiciones que con carácter básico se puedan dictar en relación con los gastos del personal al servicio del sector público, sin perjuicio del que pudiera derivarse de la modificación en el contenido del puesto de trabajo, de la variación del número de efectivos asignados a cada programa, del grado de consecución de los objetivos fijados en él, o de la modificación de los sistemas de organización del trabajo o clasificación profesional.

A los efectos de este artículo, se entiende por masa salarial del personal sometido a régimen laboral el conjunto de las retribuciones salariales –incluidas las de carácter diferido– y extrasalariales devengadas durante 2026 por el personal afectado, exceptuándose, en todo caso:

a) Las prestaciones e indemnizaciones de la Seguridad Social.

b) Las cotizaciones al sistema de la Seguridad Social a cargo de la persona empleadora.

c) Las indemnizaciones correspondientes a traslados o despidos.

d) Las indemnizaciones por gastos realizados por el trabajador o trabajadora.

Los gastos de acción social no podrán incrementarse, en términos globales, respecto a los de 2026.

10.– Lo previsto en el párrafo anterior representa el límite máximo de la masa salarial correspondiente a 2027, cuya distribución y aplicación individual se producirá a través de la negociación colectiva.

11.– Las variaciones de la masa salarial se calcularán en términos de homogeneidad para los dos períodos objeto de comparación, en lo que respecta tanto a efectivos de personal y antigüedad del mismo como al régimen de jornada, trabajo y resto de condiciones laborales.

12.– Los acuerdos, convenios o pactos del personal empleado público del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi de cuya aplicación se deriven incrementos retributivos superiores al previsto en los párrafos anteriores para el ejercicio 2027 quedarán suspendidos en su aplicación a efectos de dar cumplimiento a las previsiones del presente artículo, deviniendo inaplicables las cláusulas que a él se opongan.

Quedarán también suspendidos en su aplicación los

edo erretiro arruntarekin jasotzen diren sariak, primak, kalte-ordainak eta edozein motatako prestazio ekonomikoak arautzen dituzten artikuluen eta klausulen aplikazioa, haien izena edozein dela ere.

Etete horrek eragina izango du ondorio-data 2027ko urtarrilaren 1etik 2027ko abenduaren 31ra bitartean duten enplegatu publikoen borondatezko erretiroetan edo erretiro arruntetan.

13.– Lehendakariaren, sailburuen, goi-kargudunen eta berdinduen 2027ko ekitaldirako ordainsariek ezin izango dute izan, 2026ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenetan aurreikusitako gehikuntza globala baino handiagorik, antzinatasuna dela-eta egokitu dakiekeenari kalterik egin gabe.

14.– Behin-behineko langileen ordainsariek, 2026ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, ezin izango dute izan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenetan aurreikusitako gehikuntza globala baino handiagorik, antzinatasuna dela-eta egokitzen zaien gehikuntza eragotzi gabe eta betiere haien ordainsariak erreferentziatuta dauden kategoriari dagokion diru-kopuru osoa errespetatuta.

15.– Osagarri pertsonalek, osagarri iragankorrek eta zerbitzuagatiko kalte-ordainek arau berariazkoak izango dituzte. Kalte-ordain horiek ezin izango dute izan, 2026ko abenduaren 31n indarrean daudenen aldean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenetan aurreikusitako gehikuntza globala baino handiagorik.

20. artikulua.- Ertzaintzako langileak.

1.– Gobernu Kontseiluak, 19.8 artikuluan xedaturiko baldintzetan, zehaztu egingo du Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 115.1.a artikuluan araututako kategoria-maila bakoitzari dagokion destino-osagarriaren urteko zenbatekoa.

2.– Halaber, Gobernu Kontseiluak zehaztuko du Ertzaintzak guztira jaso beharreko ordainsarien multzo osoa, 19. artikuluan ezarritako edukia eta irizpideak aplikatuta.

21. artikulua.- Lan-baldintzei buruzko akordioak eta hitzarmen kolektiboak izenpetzeko baldintzak.

1.– Gobernu Kontseiluak onetsiko ditu, Ogasun eta Finantza Sailak eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailak aldeko txostena egin ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko, organismo autonomoetako eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoetako funtzionarioei eta estatutupeko langileei, bai eta lan-kontratudunei ere, eragiten dieten lan-baldintzei buruzko akordioak, hitzarmen kolektiboak, soldaten berrikuspenak edo lehendik izenpetuta zeuden hitzarmenei oso-osoan edo zati batean atxikitzeko akordioak edo horietara zabaltzeko akordioak. Zuzenbide pribatuko ente publikoen, sozietate publikoen edo Euskal Autonomia Erkidegoko sektore

artículos y cláusulas en los que se regulan premios, primas, indemnizaciones y cualquier tipo de prestación económica que se perciba con la jubilación voluntaria u ordinaria, cualquiera que fuera su denominación.

Dicha suspensión afectará las jubilaciones voluntarias u ordinarias del personal empleado público cuya fecha de efectos se produzca entre el 1 de enero de 2027 y el 31 de diciembre de 2027.

13.– Las retribuciones para el ejercicio 2027 del lehendakari, consejeros y consejeras, altos cargos y asimilados no podrán experimentar, con respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2026, un incremento global superior al previsto en las disposiciones que con carácter básico se puedan dictar en relación con los gastos del personal al servicio del sector público, sin perjuicio de la que pudiera corresponderles por concepto de antigüedad.

14.– Las retribuciones del personal eventual no podrán experimentar, con respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2026, un incremento global superior al previsto en las disposiciones que con carácter básico se puedan dictar en relación con los gastos del personal al servicio del sector público, sin perjuicio de la que pudiera corresponderles por concepto de antigüedad, respetando en todo caso la cuantía íntegra correspondiente a la categoría a la que estuvieran referenciadas sus retribuciones.

15.– Los complementos personales y transitorios, así como las indemnizaciones por razón de servicio, se regirán por sus normativas específicas. Estas últimas no podrán experimentar, con respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2026, un incremento global superior al previsto en las disposiciones que con carácter básico se puedan dictar en relación con los gastos del personal al servicio del sector público.

Artículo 20.- Personal de la Ertzaintza.

1.– El Consejo de Gobierno, en los términos expresados en el artículo 19.8, procederá a la determinación de la cuantía anual del complemento de destino correspondiente a cada nivel de categoría regulado en el artículo 115.1.a del texto refundido de la Ley de Policía del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2020, de 22 de julio.

2.– Asimismo, el conjunto íntegro de retribuciones a percibir por la Ertzaintza se determinará por el Consejo de Gobierno, siéndole de aplicación el contenido y los criterios establecidos en el artículo 19.

Artículo 21.- Requisitos para la firma de acuerdos de condiciones de trabajo y convenios colectivos.

1.– Los acuerdos de condiciones de trabajo, convenios colectivos, las revisiones salariales o los acuerdos de adhesión o extensión en todo o en parte a otros convenios ya existentes, que afecten al personal funcionario y estatutario, así como al personal laboral de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de los organismos autónomos y de los consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se aprobarán por el Consejo de Gobierno, previo informe favorable de los departamentos de Hacienda y Finanzas y de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno. Cuando se refieran al personal dependiente de entes públicos de derecho privado, sociedades públicas o

publikoko fundazioen mende dauden langileei eragiten dietenean, aipatutako sailen aldeko txostena beharko dute entitate bakoitzaren gobernu- eta administrazio-organo eskudunek izenpetu aurretik.

2.– Aurreko paragrafoan zehaztutako ondorioetarako, dagokion akordio-proiektua bidaliko zaie Ogasun eta Finantza Sailari eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailari, eta, proiektuarekin batera, 2026. urteko guztizko soldata-masaren eta ordainsarien kuantifikazio zifratua eta 2027. urterako aurreikusitako guztizko soldata-masaren eta ordainsarien kuantifikazio zifratua, bai eta proiektuan jasotako alderdi ekonomiko guztien balorazioa ere, hori guztia 2027ko ekitaldirako ordainsariak gehitzeko baldintzak betetzen direla egiaztatze aldera. Aipatutako sail horiek, aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo egunetik aurrera eta gehienez 15 eguneko epearen barruan, dagokien txostena igorriko dute. Txosten horretan, alderdi ekonomikoei dagokienez, gastu publikoaren arloan ondorioak dakartzaten gaiak jasoko dira; hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izango urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onetsi zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginean ezarritako kontrol ekonomikoa gauzatzeko.

3.– Erabat deusezak izango dira alor honetan txostenaren izapidea egin gabe edo aurkako txosten baten kontra hartzen diren erabakiak, bai eta hurrengo ekitaldietarako soldata-gehikuntzak dakartzaten akordio, hitzarmen edo itunak ere baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren etorkizuneko legeek finkatzen dutenaren kontrakoak badira.

22. artikulua.- Autonomia Erkidegoko zuzenbide pribatuko ente publikoetako, sozietate publikoetako eta sektore publikoko fundazio eta partzuergoetako zuzendaritza-kideak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide pribatuko ente publikoetako, sozietate publikoetako eta sektore publikoko fundazio eta partzuergoetako zuzendaritza-kideen ordainsariek ezin izango dute izan, 2026ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenetan aurreikusitako gehikuntza globala baino handiagorik, antzinatasuna dela-eta egokitu dakiekeen gehikuntza eta haien ordainsariak erreferentziatuta dauden kategoriaren gehikuntza eragotzi gabe.

2.– Artikulu honetan aipatzen diren zuzendaritza-kideek kontzeptu guztietan jasoko dituzten ordainsarien urteko gehieneko zenbatekoak, bermatu gabeko kopuruko pizgarriak barne, ezin izango dira Eusko Jaurlaritzako sailburu batek urtean jasotzen dituen ordainsari osoak baino handiagoak izan.

3.– Goi Kargudunen Lansariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legearen 4.2 artikuluan agintzen dena betetzeko, pizgarriak ebaluatzeko eta emateko irizpideak zehazterakoan, kontuan hartuko da zenbateraino bete diren entitate bakoitzaren urteko aurrekontuak eta ekonomia-urte bakoitzean aurrekontuekin batera doan urteko memorian jasotako helburu kualitatiboak, eta urteko kudeaketa-plana efikaziaz bete den, betiere kargu publikodunen

fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, requerirán, con carácter previo a su firma por parte de los órganos de gobierno y administración competentes de cada entidad, el informe favorable de los citados departamentos.

2.– A los efectos previstos en el párrafo anterior, se remitirá a los departamentos de Hacienda y Finanzas y de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno el correspondiente proyecto de acuerdo, acompañado de la cuantificación cifrada de la masa salarial y de las retribuciones del año 2026 y de la masa salarial y de las retribuciones previstas para el año 2027, así como la valoración de todos los aspectos económicos contemplados en dicho proyecto, todo ello con el fin de acreditar el cumplimiento de los requisitos de incremento de retribuciones para el ejercicio 2027. Los citados departamentos emitirán, en el plazo máximo de 15 días a partir del siguiente al de la recepción de la citada documentación, el informe que les compete, que hará referencia, en lo que a sus aspectos económicos se refiere, a aquellos extremos de los que se deriven consecuencias en materia de gasto público, sin perjuicio del control económico establecido en el texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre.

3.– Serán nulos de pleno derecho los acuerdos adoptados en esta materia con omisión del trámite de informe o en contra de un informe desfavorable, así como los acuerdos, convenios o pactos que impliquen crecimientos salariales para ejercicios sucesivos contrarios a los que determinen las futuras leyes de presupuestos generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Artículo 22.- Personal directivo de los entes públicos de derecho privado, sociedades públicas, fundaciones y consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma.

1.– Las retribuciones del personal directivo de los entes públicos de derecho privado, de las sociedades públicas y de las fundaciones y consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi no podrán experimentar, con respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2026, un incremento global superior al previsto en las disposiciones que con carácter básico se puedan dictar en relación con los gastos del personal al servicio del sector público, sin perjuicio de la que pudiera corresponderles por concepto de antigüedad, así como del incremento de la categoría a la que estuvieran referenciadas sus retribuciones.

2.– La cuantía máxima anual de las retribuciones que por todos los conceptos, incluidos los incentivos de cuantía no garantizada, perciba el personal a que se refiere este artículo no podrá exceder en ningún caso de las retribuciones íntegras anuales que corresponden a un consejero o consejera del Gobierno Vasco.

3.– En cumplimiento de lo preceptuado en el artículo 4.2 de la Ley 14/1988, de 28 de octubre, de Retribuciones de Altos Cargos, los criterios para la evaluación y concesión de incentivos vendrán determinados por el cumplimiento de los presupuestos anuales de cada entidad y de los objetivos cualitativos contenidos en la memoria anual que acompaña a estos en cada ejercicio, así como por la eficacia en el cumplimiento del plan de gestión anual de la

betebeharrei eta eskubideei buruzko azaroaren 15eko 156/2016 Dekretuak zehaztutakoaren arabera. Pizgarriak ezartzeko, entitatea atxikita dagoen saileko titularrak eman beharko du onespena, agindu bidez, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak txostena egin ondoren.

4.– Entitate bakoitzeko gobernu- eta administrazio-organo eskudunek erabaki ahal izango dute zein modu eta alditan ordainduko diren pizgarri horiek.

23. artikulua.- Hartzeko pasiboetarako kredituak.

1.– Indarrean dauden arau espezifikoetan xedatutakoarekin bat etorriz bidezkoak diren kasuetan eta kopuruen arabera ordainduko dira pentsioak eta bestelako eskubide pasiboak.

2.– Eskatutako gabealdiak bete dituzten langileek, Euskal Herriko Autonomia Administrazioan bere zerbitzuak egin zituzten langileen lanbide eta gozamen-eskubideei buruzko Eraberritutako idazkera onartzekoa, maiatzaren 13ko 1/1986 Legegintzako Dekretua aplikatzearen ondorioz, hartzeko pasiboengatik sortutako pentsioek ezin izango dute izan, 2026ko abenduaren 31n indarrean daudenen aldean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenetan aurreikusitako gehikuntza globala baino handiagorik.

24. artikulua.- Akordioak etetea.

2027ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, partzialki etengo dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak, haren organismo autonomoek, zuzenbide pribatuko ente publikoek, sozietate publikoek, eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoek sindikatuekin sinatutako akordio, hitzarmen edo itun guztiak, lege honetan ordainsariei buruz ezarritako neurriak behar bezala aplikatzeko behar den eran.

entidad en los términos que establece el Decreto 156/2016, de 15 de noviembre, sobre obligaciones y derechos del personal cargo público. La implantación de los incentivos será sometida a la aprobación mediante orden de la persona titular del departamento al que esté adscrita la entidad, previo informe de la Oficina de Control Económico.

4.– Los órganos competentes de gobierno y administración de cada entidad podrán determinar la forma y la cadencia en la que estos incentivos puedan ser abonados.

Artículo 23.- Créditos de haberes pasivos.

1.– Las pensiones y otros derechos de carácter pasivo se harán efectivos en los supuestos y cuantías que procedan de conformidad con lo dispuesto en la normativa específica vigente.

2.– Las pensiones por haberes pasivos devengadas en aplicación del Decreto Legislativo 1/1986, de 13 de mayo, por el que se aprueba el texto refundido de los Derechos Profesionales y Pasivos del personal que prestó sus servicios a la Administración Autónoma del País Vasco, por el personal que haya cubierto los periodos de carencia exigidos no podrán experimentar, con respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2026, un incremento global superior al previsto en las disposiciones que con carácter básico se puedan dictar en relación con los gastos del personal al servicio del sector público.

Artículo 24.- Suspensión de acuerdos.

Con efecto a 1 de enero de 2027 se suspenden parcialmente todos los acuerdos, convenios o pactos firmados por la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi, sus organismos autónomos, los entes públicos de derecho privado, las sociedades públicas y las fundaciones y consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi con las organizaciones sindicales en los términos necesarios para la correcta aplicación de las medidas de carácter retributivo recogidas en la presente ley.

IV. kapitulua: Itunpeko ikastetxeen gastuei aurre egiteko ekonomia-modulua

Capítulo IV: Módulo económico de sostenimiento de los centros educativos concertados

IV. KAPITULUA

ITUNPEKO IKASTETXEEN GASTUEI AURRE EGITEKO EKONOMIA-MODULUA.

25. artikulua.- Itunpeko ikastetxeen gastuei aurre egiteko ekonomia-modulua.

1.– Lege honen IV. eranskinean finkatzen dira hezkuntza-maila bakoitzaren moduluko osagaiak eta dagozkien zenbatekoak.

2.– IV. eranskinean zehaztutako modulu ekonomikoak gehieneko muga ekonomikoak dira modulua osatzen duten kontzeptu guztietarako.

Hezkuntza Sailari baimena ematen zaio IV. eranskinean zehaztutako modulu ekonomikoetan beharrezkoak diren aldaketak egiteko, modulu horiek kalkulatzerakoan egon daitezkeen akats materialen edo egitatezkoen ondorioz.

3.– Hala ere, ordainketa eskuordetua daukaten mailetan, irakasle bakoitzaren benetako antzinatasuna kontuan hartuta ordainduko da inoren kontura diharduten langileen eta kooperatibisten antzinatasuna.

Era berean, ordainketa eskuordetuaren sisteman sartutako talde osoarentzako Gizarte Segurantzarako kotizazioa Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean urtero zehazten diren kotizazio-tasen arabera egingo da.

4.– Baldin eta, 2027. urteko ekitaldi ekonomikorako, Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako langileen ordainsariak aldatzen badira, IV. eranskinean finkatzen diren modulu ekonomikoak ere automatikoki aldatutzat hartuko dira, honako zenbateko honetan: hezkuntza-itunen langileria-gastuen osagaiei Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako langileentzat ezartzen den ordainsari-aldaketaren portzentajea aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa. Dena dela, modulu horiek aplikatzean ezin izango dira gainditu itunpeko ikastetxeetako langileentzat sektorean indarrean dauden akordioek ezarritako ordainsariak.

5.– Ezein kasutan ez da asumituko itunpeko ikastetxeetako langileen ordainsarietan aldaketarik egitea, baldin eta ordainsari-aldaketa horien ondorioz gainditzen badira artikulu honetan aipatzen diren modulu ekonomikoetako langileria-gastuen osagaietarako finkatzen diren zenbatekoak.

6.– Enpleguaren egonkortasunerako eta irakasleen plantillak berritzeko behar den finantzaketa gehigarriari dagokionez, honela jokatuko da:

a) Akordioei edo, hala badagokio, hau ezartzen duen erregelamendu-arauari jarraituz, ituna indarrean dagoen bitartean itundutako unitateak murrizteagatik irakaskuntza itunduetan irakasleak kaleratzeagatik ematen diren kalte-ordainen zenbatekoa lege honetan itunpeko ikastetxeen

CAPÍTULO IV

MÓDULO ECONÓMICO DE SOSTENIMIENTO DE LOS CENTROS EDUCATIVOS CONCERTADOS.

Artículo 25.- Módulo económico de sostenimiento de los centros educativos concertados.

1.– Los componentes del módulo y sus respectivos importes por cada nivel educativo son los fijados en el Anexo IV de esta ley.

2.– Los módulos económicos especificados en el Anexo IV son topes económicos máximos para todos los conceptos que componen el módulo.

Se autoriza al Departamento de Educación a efectuar en los módulos económicos especificados en el Anexo IV las modificaciones que sean precisas, consecuencia de errores materiales o de hecho que se hayan podido producir en su cálculo.

3.– No obstante, en los niveles afectados por el sistema de pago delegado, el concepto de antigüedad a los trabajadores y las trabajadoras por cuenta ajena y cooperativistas será abonado en función de la antigüedad real de cada profesor o profesora.

Asimismo, la cotización a la Seguridad Social para todo el colectivo incluido en el sistema de pago delegado se realizará sobre la base de los tipos de cotización que anualmente se determinen en la Ley de Presupuestos Generales del Estado.

4.– En el supuesto de que, para el ejercicio económico del año 2027, se modifiquen las retribuciones del personal de los centros docentes públicos de enseñanza no universitaria dependientes del Departamento de Educación, los importes de los módulos económicos fijados en el Anexo IV se entenderán automáticamente modificados en el importe resultante de aplicar, a los componentes de gastos de personal de los conciertos educativos, el porcentaje de modificación retributiva establecido para el personal de los centros docentes públicos de enseñanza no universitaria dependientes del Departamento de Educación. En todo caso, la aplicación de dichos módulos no podrá superar las retribuciones del personal de los centros concertados establecidas por los acuerdos vigentes en el sector.

5.– En ningún caso se asumirán alteraciones de las retribuciones del personal de los centros concertados que superen las cuantías fijadas para los componentes de gastos de personal en los módulos económicos a que se refiere este artículo.

6.– En cuanto a la financiación adicional que fuera necesaria para la estabilidad en el empleo y la renovación de las plantillas docentes, se procederá de la siguiente manera:

a) Conforme a los acuerdos o normativa reglamentaria que, en su caso, lo establezca, el importe de las indemnizaciones por despido de personal docente en enseñanzas concertadas que tengan su origen en la disminución de unidades concertadas durante la vigencia

gastu-kontzeptu horretarako baimendutako kredituaren kontura ordaindu ahal izango dio Hezkuntza Sailak ikastetxeari, betiere aurrekontu-bitartekorik badago.

b) Akordioei edo, hala badagokio, hau ezartzen duen erregelamendu-arauari jarraituz, irakasleen plantillak berritzeko, Hezkuntza Sailak bere gain hartu ahal izango du, lege honetan itunpeko ikastetxeen gastu-kontzeptu horretarako baimendutako kredituaren kargura, itunpeko irakaskuntzetako irakasleen erretiro partziala betetzeko errelebo-kontratuek sortzen duten gizarte-kotizazioetako gainkostua, betiere aurrekontu-baliabiderik badago eta aplikatzekoak diren arauak betetzen badira.

c) Artikulu hau berdintasunez aplikatuko da ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikastetxe guztietan, eta enpresaburuen elkarte bateko kide ez izateak edo enpresaburuen elkarte hori akordioarekin ados ez egoteak ez du ikastetxea baztertzea ekarriko.

del concierto podrá ser abonado por el Departamento de Educación al centro docente con cargo al crédito autorizado en esta ley para este concepto de gasto de los centros concertados, siempre que haya disponibilidad presupuestaria.

b) Conforme a los acuerdos o normativa reglamentaria que, en su caso lo establezca, para la renovación de las plantillas docentes, el Departamento de Educación podrá asumir, con cargo al crédito autorizado en esta ley para este concepto de gasto de los centros concertados, el sobrecoste en cotizaciones sociales que generen los contratos relevo de personal docente en enseñanzas concertadas que se jubile parcialmente, siempre que haya disponibilidad presupuestaria y se cumplan las normas que resulten de aplicación.

c) La aplicación de este artículo se realizará en términos de igualdad para todos los centros docentes que cumplan los requisitos establecidos, sin que la no pertenencia a una organización patronal o la disconformidad de la organización patronal con el acuerdo pueda derivar en la exclusión del centro docente.

V. kapitulua: Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia planari lotutako funtsak kudeatzea

Capítulo V: Gestión de los fondos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

V. KAPITULUA

SUSPERTZE, ERALDATZE- ETA ERRESILIENTZIA-PLANARI LOTUTAKO FUNTSAK KUDEATZEA.

26. artikulua.- Kredituak gaitzea.

1.– Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik eratorritako funtsak banatzearen ondorioz –bai transferentzien bidez, bai mailegu itzulgarrien bidez– 2027ko ekitaldian lor daitezkeen diru-sarrera handiagoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren aurrekontuko diru-sarreren egoera-orrian txertatuko dira.

2.– Diru-sarrera horiek kasuan kasuko ordainketa-kredituak eta, hala badagokio, konpromiso-kredituak sortuko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren aurrekontuko gastuen egoera-orrian edo organismo autonomoen edo Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoen gastuen egoera-orrietan, eta atxikita geratuko dira Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketa eta proiektuen finantzaketa espezifikoari, bat etorriz finantza-konpromisoak formalizatzeko akordio, hitzarmen, ebazpen edo tresna juridikoetan ezarritakoarekin.

3.– Horrela sortutako kredituak Ogasun eta Finantza Sailak bideratu ahal izango ditu, funtsen lurralde-banaketarako eskumena duten Estatuko edo Europako organoen hasierako erabakiak jasotzen diren unetik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokion zenbatekoan, eta ez zaio aplikatuko maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 83. artikuluan xedatutakoa. Era berean, kreditua sortu eta aurrekontuan bideratu ondoren, kreditu hori erabilgarri egongo da gastu-baimenak eta -xedapenak eta horiek sorrarazten dituzten negozio juridikoak izapidetzeko, baina gastu-xedapenen eta haien ondoriozko negozio juridikoen efikazia eten ahal izango da, kasuan-kasuan ekarpen-konpromiso irmoak egiaztatzen dituzten behin betiko akordioak, hitzarmenak, ebazpenak edo tresna juridikoak izenpetu edo onetsi arte.

27. artikulua.- Sailarteko programa.

1.– Aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera sortutako kredituak Ogasun eta Finantza Sailak gaituko ditu dagokion aurrekontu-sekzioko, organismo autonomoaren aurrekontuko edo dagokion sektore publikoko partzuergoaren aurrekontuko 1228 programan («Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa»). Programa horren zuzkidura Estatuko Administrazioaren edo Europar Batasunaren transferentzien edo ekarpenen kontura finantzatuko da, zeinak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako funtsetatik eratorriko diren.

CAPÍTULO V

GESTIÓN DE LOS FONDOS VINCULADOS AL PLAN DE RECUPERACIÓN, TRANSFORMACIÓN Y RESILIENCIA.

Artículo 26.- Habilitación de créditos.

1.– Los mayores ingresos que puedan obtenerse en el ejercicio 2027 como consecuencia del reparto de los fondos derivados del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, ya sea mediante transferencias o mediante préstamos reintegrables, se integrarán en el estado de ingresos del presupuesto de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.– Dichos ingresos generarán los correspondientes créditos de pago y, en su caso, de compromiso que procedan en el estado de gastos del presupuesto de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi o en los estados de gastos de los organismos autónomos o de los consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma y quedarán afectos a la financiación específica de las actuaciones y proyectos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, de conformidad con lo previsto en los acuerdos, convenios, resoluciones o instrumentos jurídicos a través de los cuales se formalicen los compromisos financieros.

3.– Los créditos así generados podrán instrumentarse por el Departamento de Hacienda y Finanzas desde el momento en que consten los acuerdos iniciales de los órganos estatales o europeos competentes de la distribución territorial de los fondos, en la cuantía que haya de corresponder a la Comunidad Autónoma de Euskadi, sin que le sea de aplicación lo previsto en el artículo 83 del texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo. Asimismo, una vez generado e instrumentado presupuestariamente el crédito, este se entenderá disponible para tramitar las autorizaciones y disposiciones de gasto y los negocios jurídicos de los que estas traigan causa, si bien la eficacia de las disposiciones de gasto y de los negocios jurídicos subyacentes a estas últimas quedará sometida a la condición suspensiva de la subscripción o la aprobación de los acuerdos definitivos, los convenios, las resoluciones o los instrumentos jurídicos por medio de los cuales se verifiquen en cada caso los compromisos firmes de aportación.

Artículo 27.- Programa multidepartamental.

1.– Los créditos generados de conformidad con lo previsto en el artículo anterior serán habilitados por el Departamento de Hacienda y Finanzas en el programa 1228, «Mecanismo de Recuperación y Resiliencia», de la sección presupuestaria, del presupuesto del organismo autónomo o del presupuesto del consorcio del sector público correspondiente. La dotación de dicho programa será financiada con cargo a las transferencias y aportaciones de la Administración del Estado o de la Unión Europea derivadas de los fondos vinculados al Plan de

2.– Programa horren aurrekontu-zuzkiduretan sartuko dira, Ogasun eta Finantza Sailak zehaztutako sailkapen organiko eta ekonomikoarekin, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketak eta proiektuak finantzatzera bideratutako ordainketa-kredituak eta, hala badagokio, kasuan kasuko konpromiso-kredituak.

3.– Programa hori funts propioekin hornitu ahal izango da, betiere Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketak eta proiektuak kofinantzatzea edo osatzea helburu badute.

28. artikulua.- Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketak eta proiektuak, haiek exekutatzeko eskumena foru-aldundiena bada.

1.– Foru-aldundiei transferituko zaizkie Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik eratorritako funtsak banatzearen ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoak Estatuko Administraziotik lortzen dituen diru-sarrerak, baldin eta diru-sarrera horien legezko erabilera lurralde historikoetako foru-organoek, Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko eskumen-mugaketaren arabera, exekutatu behar dituzten proiektuok edo ekintza-lerroak finantzatzea bada. Transferentzia hori Gobernu Kontseiluak zehazten duen lurralde-banaketaren arabera egingo da, Ogasun eta Finantza Sailak eta gaiaren arabera eskumena duen sailak proposatuta, aldez aurretik banaketa hori foru-aldundiekin edo, hala badagokio, kasuan kasuko erakundearteko organoen barruan adostu ondoren.

2.– Funts horien transferentzia dagokion ministerio-sailari jakinaraziko zaio, entitate erabakitzailea den aldetik, bai eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren agintaritza arduradunari ere.

3.– Funts horien transferentziatik eratorritako erakunde-konpromisoek, bai sarrerakoek bai gastukoek, aurrekontu-izaera izango dute beti, eta 95. sekzioan jasota geratuko dira.

4.– Transferitutako diru-sarrerak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketen eta proiektuen finantzaketa espezifikoari atxikita geratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko finantza-konpromisoak formalizatzeko akordio, hitzarmen, ebazpen edo tresna juridikoetan xedatutakoaren arabera.

5.– Foru-aldundiek, beren eskumenen esparruan, dagozkien azpiproiektuak exekutatzea egokituko zaien entitateak diren aldetik, beren gain hartuko dituzte Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa erregulatzen duen araudiak entitate betearazleei esleitzen dizkien konpromiso eta betebehar guztiak.

29. artikulua.- Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako ordainketa- eta konpromiso-kredituak.

1.– Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako

Recuperación, Transformación y Resiliencia.

2.– Las dotaciones presupuestarias del citado programa incluirán, con la clasificación orgánica y económica que determine el Departamento de Hacienda y Finanzas, los créditos de pago y, en su caso, de compromiso que procedan, destinados a financiar las actuaciones y proyectos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

3.– Este programa se podrá dotar adicionalmente con fondos propios siempre que tengan por objeto cofinanciar o complementar las actuaciones y proyectos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

Artículo 28.- Actuaciones y proyectos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia cuya ejecución sea competencia de las diputaciones forales.

1.– Los ingresos que la Comunidad Autónoma del País Vasco pueda obtener de la Administración del Estado como consecuencia del reparto de los fondos derivados del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia y que estén legalmente afectados a financiar proyectos o líneas de acción cuya ejecución, de conformidad con la delimitación de competencias entre las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos forales de sus territorios históricos, corresponda a los órganos forales de los territorios históricos serán transferidos a las diputaciones forales de acuerdo con la distribución territorial que determine el Consejo de Gobierno, a propuesta del Departamento de Hacienda y Finanzas y del departamento competente por razón de la materia, tras acordar, con carácter previo, dicha distribución con las diputaciones forales o, en su caso, en el seno de los órganos interinstitucionales correspondientes.

2.– La transferencia de dichos fondos será comunicada al departamento ministerial que corresponda, en su condición de entidad decisora, y a la autoridad responsable del Mecanismo para la Recuperación y Resiliencia.

3.– Los compromisos institucionales, tanto de ingreso como de gasto, que se deriven de la transferencia de dichos fondos tendrán, en todo caso, carácter presupuestario y quedarán recogidos en la sección 95.

4.– Los ingresos transferidos quedarán afectos a la financiación específica de las actuaciones y proyectos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, de conformidad con lo previsto en los acuerdos, convenios, resoluciones o instrumentos jurídicos a través de los cuales se hayan formalizado los compromisos financieros con la Comunidad Autónoma del País Vasco.

5.– Las diputaciones forales, como entidades a las que corresponderá, en el ámbito de sus competencias, la ejecución de los subproyectos correspondientes, asumirán todos los compromisos y obligaciones que la normativa reguladora del Mecanismo para la Recuperación y Resiliencia atribuye a las entidades ejecutoras.

Artículo 29.- Créditos de pago y de compromiso vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

1.– Los créditos de pago vinculados al Plan de

ordainketa-kredituak zabaldu ahal izango dira ekitaldian zehar. Kreditu-zabaltzeak Ogasun eta Finantza Sailak erabakitzen duen moduan finantzatuko dira. Horrez gain, Ogasun eta Finantza Sailak kreditu globalaren edo diru-zaintzako gerakinen kontura ere egin ahal izango du zabaltze hori. Zabaltze horiek finantzatzera bideratutako kreditu globalaren gehikuntzak ez dira zenbatuko maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 20.2 artikuluan ezarritako mugen barruan.

2.– Ogasun eta Finantza Sailak konpromiso-kredituen egoera-orria gehitu dezake, kreditu berriak onetsiz edo haien zenbatekoa handituz, bai eta gerorako konpromisoen egoera-orria ere, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketak eta proiektuak finantzatzeko, non ez diren aplikatuko maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 31.1 eta 97.3 artikuluetan ezarritako mugak.

30. artikulua.- Aurrekontu-aldaketak.

